

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2201

762/2025 EBAZPENA, maiatzaren 15ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren Medikua kategorian (Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM lanpostu funtzionala), 2020-2021-2022ko EPEan txanda ireki bidez estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2020-2021-2022ko eta Egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak (2022ko abenduaren 19ko EHAA, 240. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1760/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Medikua kategorian (Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri espezifikoak (2022ko abenduaren 27ko EHAA, 246. zk.). Ebazpen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenak aldatu zuen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 738/2025 Ebazpenaren bidez, argitaratu egin ziren Medikua kategorian (Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM lanpostu funtzionala) 2020-2021-2022ko EPEan txanda ireki bidez hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 31ko 561/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeak gaitu ziren, beharrezko izapideak egin ditzaten Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuetan esleitutako destinoez jabetzeari dagokionez, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEtan deitutakoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da izangaien behin betiko ebazpenaren I. eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzeko ebazpena, indarrean dagoen legeriak langileen arloan emandako ahalmenez baliatuz.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla, 2020-2021-2022ko EPEaren txanda ireki bidez, Medikua kategorian (Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleitutako destinoaren zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritzan hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiak zita eskatu beharko du lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargokide-egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espeditente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzematea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzearagozterako moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkion eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

2025eko maiatzaren 22a, osteguna

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 15a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.

2025eko maiatzaren 22a, osteguna

ERANSKINA

2020-2021-2022 OSAKIDETZAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO
 DESTINO BATEN ESLEIPENA LORTU DUTEN PERTSONEN ZERRENDA
 F. E. MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOKO M.
 TXANDA IREKIA OPOSIZIO LEHIAKETARAKO BLOKEA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleितua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***1632**	Sagastagoya Zabala, Joana	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoa-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin	2
***2455**	Orueta Olabarria, Arrate	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoa-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Besterik gabe	2
***9691**	Santisteban Leguina, Eider	Bilbao-Basurtuko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoa-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Besterik gabe	2
***6633**	Peña Etxebarria, Leire	Uribeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Klinikoa-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2
***5736**	Eceizabarrena Matxinandiarena, Idola	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoa-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2
***2166**	Delgado Jimenez, Nuria	Uribeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Klinikoa-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2

2025eko maiatzaren 22a, osteguna

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleितua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***2097**	Martinez Arroyo, Esther Candelas	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoak-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2
***1308**	Rekalde Aizpuru, Graciana	Gorlizko Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Gorlizko Ospitalea-Gorliz / Zerbitzu Klinikoak-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2 2021-12-03
***2003**	Batanero Maguregui, Marta	Uribeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Klinikoak-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2
***8555**	Epalza Diaz-Guardamino, Catalina Sofia	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Besterik gabe	2
***8431**	Garcia de Las Cuevas, Monica	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Klinikoak-Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa-Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa / 2 Txanda-2 Txanda Go/A-Besterik gabe	2